

El labortano Maurice Ravel: investigación e interpretación 150 años después de su nacimiento



Bi egunetan, hizlari ezagunek hitzaldi eta tailerrak eskainiko dituzte bi ardatz nagusiren inguruan: ikuspuntu praktiko-interpretatiboa eta azterketa historikoa.

Uzt. 18 2025

Kod. K08-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 18 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Maurice Ravelen jaiotzaren 150. urteurrenaren harira, Uda Ikastaro honek artistaren eta haren musika ondarearen azterketa sakon eta diziiplina anitzekoa proposatzen du. Bi egunetan, hizlari ezagunek hitzaldi eta tailerrak eskainiko dituzte bi ardatz nagusiren inguruan: ikuspuntu praktiko-interpretatiboa eta azterketa historikoa.

Alde batetik, Ravelen musikak planteatzen dituen erronka interpretatiboak jorratuko dira, musika interpreteei eta irakasleei beren obren ulermena eta exekuzioa aberasteko aukera emango dieten tresnak eta perspektibak emanez. Bestetik, azken aurkikuntza musikologikoak aurkeztuko dira, Ravel bere garaiko testuinguruan kokatuz, eta bere sorkuntza artistikoaren eta bere garaiko mugimendu kulturalen arteko loturak argituz.

Ikastaroa ikaskuntza eta elkartruckerako espazio gisa diseinatuta dago, eta Ravelen obran ikuspegi integratzaile batetik sakondu nahi duten eta musikan aritzen diren pertsonei, musika ikasleei eta musikazaleei zuzenduta dago; interpretazio praktika eta ikerketa historikoa uztartuko ditu.

Helburuak

Bere obraren ikuspegi praktiko-interpretatiboan sakontzea, bere musikak dituen erronka eta berezitasunak interpreteen eta irakasle espezializatuen ikuspegitik jorratuta.

Raveli buruzko azken aurkikuntza historiko eta musikologikoak analizatzea, musika-ekoizpena garaiko mugimendu artistiko eta kulturalaren testuinguruan kokatuta.

Interpreteen, musikologoen eta ikasleen arteko ideien trukea sustatzea, Ravelen lanen inguruan elkarrekin hausnartzeko espazio bat sortuta.

Ravelen konposizioen interpretazio sakonagoa eta arrazoituagoa egin ahal izateko tresna praktikoak eta teorikoak eskaintzea.

Ezagutza historikoa interpretazio prozesuan txertatzea, ikerketak musika exekuzioa nola aberastu dezakeen erakutsiz.

Antolakuntza



Programa

2025-07-18

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Josu Okiñena Unanue MUSIKENE - Profesor Doctor Pianista
09:30 - 10:15	“Una historia de dinero, derecho y patrimonio histórico y cultural. El enrevesado caso Ravel” Mikel Mancisidor de la Fuente Universidad Deusto - Profesor Doctor
10:15 - 11:00	“Explorando a Ravel: Investigación en la Práctica Interpretativa” Josu Okiñena Unanue Musikene - Pianista/Profesor Doctor
11:00 - 11:45	“El Universo de Ravel: Orquestación Maestra e Interpretación de la Cuerda” Arturo tamayo Conservatorio de Lugano - Director de Orquesta
12:15 - 13:00	“Ravel: Patrimonio, Práctica e Interpretación” Una mirada multidisciplinar al legado del compositor francés Josu Okiñena Unanue Musikene - Pianista/Profesor Doctor Arturo tamayo Conservatorio de Lugano - Director de Orquesta Mikel Mancisidor de la Fuente Universidad Deusto - Profesor Doctor
15:30 - 16:00	“Maurice Ravel y el Violín: claves para una Interpretación coherente” Tatiana Samouil Musikene - Violinista/Profesora
16:00 - 16:30	“Maurice Ravel y la Viola: Colores, Texturas y Expresión” Natasha Tchitch Musikene - Violista/Profesora
16:30 - 17:00	“El Cello en el Universo de Ravel: Profundidad y Expresión” Natasha Tchitch Musikene - Chelista/Profesor
17:15 - 18:00	Mahai ingurua: “Ravel y la Cuerda: Perspectivas Interpretativas y Maestría Orquestal” Arturo tamayo Musikene - Director de Orquesta Tatiana Samouil Musikene - Violinista/Profesora Natasha Tchitch Musikene - Violista/Profesora Pavel Gomziakov Musikene - Chelista/Profesor

Zuzendaritza



Josu Okiñena Unanue

Musikene

Munduko areto nagusietan eta Nazioarteko Jaialdi ospetsuetan aritu den pianista profesionala, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko, Musikeneko, irakaslea da 2001ean sortu zenetik. Bere jarduera profesionala ikerketara eta interpretaziora bideratu du, zientzia-jarduera gisa oinarrituz diziplina arteko ikuspegi batetik. Valladolideko Unibertsitatean doktore, UPV/EHU - Donostiako Orfeoia saria jaso zuen Aita Donostiari buruz egindako lanagatik (2011) ("La comunicación autopoiética, fundamento para la interpretación musical: su estudio en la obra para voz y piano de J. A. Donostia") eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Lagun Numerario da (2023). Besteak beste, " La interpretación musical como proceso artístico y científico : dos dimensiones complementarias " obraren egilea da.

Irakasleak



Pavel Gomziakov



Mikel Mancisidor de la Fuente

Universidad de Deusto

Mikel Mancisidor Zuzenbidean lizentziatua da, Nazioarteko Harremanetan eta Diplomazian doktorea eta historioan doctorea. NBEko DESC Batzordeko Zientzia eta Giza Eskubideei buruzko Iruzkin Orokorraren errelatore izan da (batzorde horretako kide da 2013tik). Nazioarteko Zuzenbideko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea izan da Deustun, American Universityn eta René Cassin Institutuan. 2013ko Eskubideen Urrezko Domina eta 202ko Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa Humanitate Saria ditu.



Josu Okiñena Unanue

Musikene

Munduko areto nagusietan eta Nazioarteko Jaialdi ospetsuetan aritu den pianista profesionala, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko, Musikeneko, irakaslea da 2001ean sortu zenetik. Bere jarduera profesionala ikerketara eta interpretaziora bideratu du, zientzia-jarduera gisa oinarrituz diziplina arteko ikuspegi batetik. Valladolideko Unibertsitatean doktore, UPV/EHU - Donostiako Orfeoia saria jaso zuen Aita Donostiari buruz egindako lanagatik (2011) ("La comunicación autopoietica, fundamento para la interpretación musical: su estudio en la obra para voz y piano de J. A. Donostia") eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Lagun Numerario da (2023). Besteak beste, " La interpretación musical como proceso artístico y científico : dos dimensiones complementarias " obraren egilea da.



Tatiana Samouil



Arturo tamayo



Natasha Tchitch

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-18 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	34,00 EUR
Orokorra	-	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	34,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	41,00 EUR
Donostia Kultura	-	41,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa